

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

22/2019 Foru Agindua, uztailaren 31koa, baimentzen duena Alfonso Garrosa Garcia jaunaren behin-behineko izendapena Iruña Okako Udaleko idazkaritza lanposturako

Iruña Okako Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela oporraldian Valentina Echeberria Mutiloa udal idazkaria ordezteko.

Hortaz, proposatzen du korporazio horretako funtzionario Alfonso Garrosa Garcia behin-behineko izendapena.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko eskumen eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Alfonso Garrosa Garcia behin-behinean izendatzea Iruña Okako Udaleko idazkaritza lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan haren titularra ez dagoen bitartean, 2019ko abuztuaren 1etik 23ra arte, bi egunok barne.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bakoitzeko ez du indarrik.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Iruña Okako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 31

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Oreekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ